

Ley 2/2010 de 3 de marzo, de salud sexual y reproductiva y de la interrupción voluntaria del embarazo



¿Qué principios orientan la Ley?

- El derecho a una sexualidad en libertad, consciente, segura, placentera y saludable.
- El derecho a una maternidad libremente decidida.
- La garantía de no discriminación y la responsabilidad pública de establecer los recursos necesarios para garantizar la salud sexual y reproductiva.

La Ley pretende prevenir, especialmente en personas jóvenes, las infecciones de transmisión sexual, los embarazos no deseados y los abortos.

Además de en los centros de salud de Osakidetza, se puede pedir consejo y orientación sobre métodos anticonceptivos a través del teléfono de Osarean, Osakidetza en la red 902 203 020. En todas las farmacias de Euskadi se puede acceder a la compra de preservativos, de píldora del día después, donde además se brinda consejo sanitario si así se desea. Distintas organizaciones ciudadanas (antisida y otras) promueven además campañas para la realización de sexo seguro. En las escuelas vascas existe un programa de prevención del VIH y otras enfermedades de transmisión sexual dirigido a jóvenes de 16-18 años.

¿Cuáles son las condiciones y requisitos para que se practique una Interrupción Voluntaria del Embarazo (IVE)?

La ley 2/2010 de 3 de marzo, reconoce el derecho a la IVE a todas las mujeres, siempre que se realice en las siguientes condiciones:

INTERRUPCIÓN DEL EMBARAZO A PETICIÓN DE LA MUJER

- A) Durante las primeras 14 semanas de gestación, sin más requisito que su solicitud y habiendo transcurrido al menos 3 días desde que haya recibido un sobre con información sobre derechos y ayudas públicas a la maternidad.

INTERRUPCIÓN DEL EMBARAZO POR INDICACIONES MÉDICAS

- B) Cuando no se superen las 22 semanas de gestación, por grave riesgo de anomalías o enfermedades en el feto o en la mujer.
- C) Cuando se detecten anomalías fetales incompatibles con la vida o una enfermedad extremadamente grave e incurable en el feto.

REQUISITOS

- Que se practique en un centro sanitario público o privado acreditado.
- Consentimiento expreso y por escrito de la mujer o de su representante legal.

En el caso de las mujeres de 16 y 17 años, el consentimiento también corresponde a la mujer pero tendrá que prestarlo acompañado de un documento que acredite que ha informado a uno o una de sus representantes legales (padre/madre/tutor/tutora). El documento deberá ser entregado personalmente por la mujer, acompañada de representante legal, al personal sanitario del centro que le practicará la IVE.

En su caso, la joven podrá alegar ante el médico o médica que informar a su representante legal provocaría

un conflicto familiar grave, amenazas, coacciones o violencia. En este supuesto, y previos los informes que se requieran, será el personal médico quien apreciará, por escrito y con la firma de la mujer, que las alegaciones son fundadas.

En cualquiera de los supuestos por los que se practica la IVE, los centros sanitarios están obligados a asegurar la intimidad y la confidencialidad de los datos personales.

¿Dónde acudir?

La prestación de la IVE es financiada por el sistema sanitario público a todas las mujeres que cumplan las condiciones de la Ley, la soliciten, y tengan derecho a la asistencia sanitaria pública.

Cuando la solicitud de la IVE sea a petición de la mujer, los trámites necesarios son los siguientes:

- Acudir al centro de salud de Osakidetza que oferta consulta de matrona o ginecología que le corresponda.
- Allí recibirá información en sobre cerrado y con constancia de la fecha de entrega sobre las ayudas públicas sanitarias, sociales y económicas disponibles para las mujeres embarazadas y cuidado de hijos e hijas, así como datos sobre centros disponibles para recibir información sobre anticoncepción y sexo seguro y asesoramiento antes y después de la IVE.
- Desde el centro de salud, él o la matrona enviará telemáticamente la solicitud de la IVE, debidamente encriptada, a la Inspección Médica de la Dirección Territorial de Sanidad correspondiente, que verificará las condiciones y requisitos para la financiación de la prestación.
- Desde allí será derivada a un centro sanitario acreditado para la práctica de la IVE, que la mujer podrá elegir, y recibirá telefónicamente las oportunas instrucciones para el acceso a dicho centro.

Si se cumplen las condiciones exigidas por la Ley, también las mujeres podrán utilizar directamente los servicios de la sanidad privada para la IVE y pagar el coste de la misma.

CLÍNICAS ACREDITADAS PARA LA PRÁCTICA DE LAS IVEs DENTRO DE LAS PRIMERAS 14 SEMANAS DE GESTACIÓN:

CENTRO	DIRECCIÓN
Consulta Ginecológica Dr. Echevarría	Florida, 6- 1º. 01005 Vitoria-Gasteiz (Alava) Tfno.: 945 232 324
Centro Ginecológico y de Planificación Familiar Lasaitasuna	Ercilla, 7-1º izqda 48009 Bilbao (Bizkaia) Tfno.: 944 24 67 40
Centro Ginecológico Clínica Euskalduna	Euskalduna, 10-3º 48008 Bilbao (Bizkaia) Tfno.: 944 101 990
Consulta Ginecológica Carlton	Rodríguez Arias, 6 Dpto 411 48008 Bilbao (Bizkaia) Tfno.: 944 054 215
Módulo de Asistencia Psicosocial de Rekalde	Camilo Villabaso, 24-lonja 48002 Bilbao- (Bizkaia) Tfno.: 944 449 859
Consulta Ginecológica Manuel Prada Laya	Jose Mª. Soroa, 8 20013 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa) Tfno.: 943 326 900
Clínica Askabide	Easo, 7 20006 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa) Tfno.: 943 444 792

Sexu- eta ugalketa- osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Legea



Zein printzipiok gidatzen dute Legea?

- Sexualitatea askatasunez, kontzienteki, segurtasunez, atseginez eta osasuntsu bizitzeko eskubidea.
- Ama izatea libreki erabakitze eskubidea.
- Bereizkeriarik ezaren bermea eta sexu- eta ugalketa-osasuna bermatzeko behar diren baliabideak ezartzeko erantzukizun publikoa.

Legearen bitartez, sexu-transmisiozko infekzioak, gogoz kontrako haurdunaldiak eta abortuak saihestu nahi dira, gazteen artean batez ere.

Osakidetzako osasun-zentroetan ez ezik, Osarean telefonoaren bidez ere eska daitezke metodo antikontzeptiboak buruzko aholkuak eta informazioa (Osakidetza sarean: 902 203 020). Kondoia eta hurrengo eguneko pilulak Euskadiko botika guztietan eros daitezke, non osasun-aholkuak ere ematen dituzten, hala nahi izanez gero. Sexua segurtasunez egiteko kanpainak ere egiten dituzte herritarren antolakunde batzuek (hiesaren kontrakoek, besteak beste). EAEko eskoletan, GIBa eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuk prebenitzeko programa bat dago 16 urtetik 18ra arteko gazteentzat.

Zein baldintza eta betekizun bete behar dira Haurdunaldiaren Borondatezko Etendura (HBE) bat egiteko?

Martxoaren 3ko 2/2010 Legeak emakume guztiei aitortzen die HBE bat egiteko eskubidea, betiere kasu hauetan egiten bada:

HAURDUNALDIA ETETEA, EMAKUMEAK ESKATUTA

- A)** Haurdunaldiaren lehenengo 14 asteetan: eskaera baino ez da egin behar, amatasunerako laguntza publikoei eta eskubideei buruzko informazioa duen kartazal bat jaso, eta, gutxienez, 3 egun igaro ondoren.

HAURDUNALDIA ETETEA, MEDIKUAK AHOLKATUTA

- B)** Haurdunaldiaren 22. astea gaintzen ez denean, emakumearengan edo umekian anomaliak edo gaixotasunak gertatzeko arrisku larria dagoenean.
- C)** Umekian bizitzarekin bateragarriak ez diren anomaliak antzematen direnean edo umekian oso gaixotasun larria eta sendaezina antzematen denean.

BETEKIZUNAK

- Osasun-zentro publiko edo zentro pribatu akreditatu batean egitea.
- Emakumearen edo bere legezko ordezkariaren berriazko eta idatzizko baimena edukitzea.

16 eta 17 urteko emakumeen kasuan ere emakumeari dagokio adostasuna, baina agiri bat aurkeztu beharko du, HBEa egiteko asmoaren berri legezko ordezkari bati eman diola egiaztatzeko. Agiria emakumeak berak entregatu beharko die, legezko ordezkari bati batera, HBEa egingo dion osasun-zentroko langileei.

Gazteak medikuari alegatu diezaioko familian arazo larria, mehatxuak, derrigortzeak edo indarkeria sor litzakeela bere legezko ordezkariari jakinarazteak. Kasu horretan,

behar diren txostenak jaso ondoren, medikuek baloratuko dute -idatziz eta emakumeak sinatuta duela- alegazioak funtsatuak diren edo ez.

HBEa egiteko kasu guztietan, osasun-zentroak behartuta daude intimitatea eta datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzera.

Nora Jo?

Legean jasotako baldintzak betetzen dituzten eta osasun-asistentzia publikorako eskubidea duten emakume guztiei osasun-sistema publikoak finantzatuak die HBEa, baldin eta hala eskatzen badute.

HBEa egitea emakumeak eskatzen duenean, izapide hauek egin behar dira:

- Emagin edo ginekologia kontsulta eskaintzen duen Osakidetzako osasun-zentrorako dagokionera-joatea.
- Han, kartazal itxi bat emango diote, non informazioa emango zaion haurdun daudenentzat eta seme-alabak zaindu behar dituztenentzat dauden osasun-laguntza publikoei, sozialei eta ekonomikoei buruz; eta antisorkuntzari, sexu seguruari eta HBEaren aurreko eta osteko aholkularitzaren gaineko informazioa ematen duten zentroeiei buruz.
- Osasun-zentroan, emaginak HBEaren eskaera telematikoki bidaliko du -behar bezala enkriptatua, dagokion Osasuneko Lurralde Zuzendaritzako Ikuskaritza Medikora, non prestazioa finantzatzeko baldintzak eta betekizunak egiaztatuko diren.
- Handik, HBEa egiteko akreditatuta dagoen osasun-zentro batera besteratu da, emakumeak aukeratu duenera. Aipatu zentroan sartzeari buruzko jarraibideak telefonoz jasoko ditu.

Legean eskatzen diren baldintzak betetz gero, emakumeek zuzenean erabil ditzakete HBEa egiteko osasun-zerbitzu pribatuak. Kostua ordaindu beharko dute.

HAURDUNALDIAREN LEHENENGO 14 ASTEETAN HBEak egiteko KLINIKAK AKREDITATUAK:

ZENTROA	HELBIDEA
Ginekologia Kontsulta Echevarría dk.	Florida, 6- 1. 01005 Vitoria-Gasteiz (Araba) Tel.: 945 232 324
Lasaitasuna Ginekologia eta Familia Plangintzarako Zentroa	Ercilla, 7-1. ezk. 48009 Bilbao (Bizkaia) Tel.: 944 24 67 40
Ginekologia Zentroa Euskalduna Klinika	Euskalduna, 10-3. 48008 Bilbao (Bizkaia) Tel.: 944 101 990
Carlton Ginekologia Kontsulta	Rodríguez Arias, 6 Dpt. 411 48008-Bilbao (Bizkaia) Tel.: 944 054 215
Asistentzia Psikosozialeko Modulua Errekalde	Camilo Villabaso, 24-lonja 48002 Bilbao- (Bizkaia) Tel.: 944 449 859
Manuel Prada Laya Ginekologia Kontsulta	Jose M ^º . Soroa, 8 20013 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa) Tel.: 943 326 900
Askabide Klinika	Easo, 7 20006 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa) Tel.: 943 444 792